

**EREDUA**

**ARABAKO LURRALDE BATZORDEA 2018ko MARTXOAREN 7a**

**FORU ALDUNDIAREN ETA XXXKO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA ETXERAKO LAGUNTZA ZERBITZUAREN ESKUMENAK ESKUORDETZEKO ETA KUDEAKETAREN ARDURA EMATEKO,**

Ongizate Estatuaren zutabe diren Euskadiko Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legeak eskubidearen jabe diren pertsona guztiek gizarte-prestazio eta -zerbitzuen eskuragarritasuna eta horietarako aukera izango dutela bermatzera behartzen ditu aginte publikoak. Eskubide hori betetzeko baldintzak lege horretan bertan zehazten dira, bai eta Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren prestazio eta zerbitzuen zorroari buruzko urriaren 6ko 185/2015 Dekretuan ere, Arabako Lurralde Historikoko Gizarte Zerbitzuen Maparen arabera, Arabako Foru Aldundiak eta Lurralde Historikoko Udalek 2016ko uztailaren 22an berretsia Gizarte Zerbitzuen Plan Estrategikoaren markoaren baitan.

Legearen 22. artikulua arabera, Etxerako Laguntza Zerbitzua ahalmen eta funtzio ugari dituen udal-eskumena da, Lurralde Historikoko udal gehienek betetzeko oso zailak direnak. Izan ere, tamaina txikiagatik eta biztanle kopuru urriagatik ez dauzkate zerbitzu hori modu egokian emateko beharrezkoak diren azpiegiturak eta horrek eragin lezake Lurralde Historiko guztian Etxerako Laguntza Zerbitzuaren intentsitatea eta kalitatea antzekoa ez izatea.

Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeko 31. artikulua dioenaren arabera, Foru Aldundiei dagokie udal eskumenekoak diren zerbitzuak lurralde guztian modu oso eta egokian eman daitezten bermatzea, eta testu bereko 36. artikulua arabera Foru Aldundiek, besteak beste, udal zerbitzuei laguntzeko eginkizuna dute arlo juridikoan, ekonomikoan eta teknikoan. Aurrekoa eta baliabideen kudeaketa eraginkortasun handiagoa kontuan hartuta, gomendagarria da Arabako Foru Aldundiak udal eskumeneko zerbitzu hori ematen parte hartzea, eta horrela gainera oraingo egoerari jarraipena emango zaio, orain arte zerbitzu hori Arabako Foru Aldundiak eman izan baitu.

Horregatik, udal gabeziak azpiegiturretan integratzearen, Lurralde osoan zerbitzuaren eraginkortasuna bermatzeko mekanismoak finkatzearen eta Lurraldeko herritarrek gizarte-zerbitzu hau intentsitate eta kalitate berdinez eta baliabide ekonomikoen exekuzio eta kudeaketa eraginkor eta bikainaz jaso dezaten lortzearen, komenigarria da Arabako Foru Aldundiaren eta hala erabakitzen duten Udalen artean lankidetzamarko bat antolatzea, udal eskumenekoak diren zenbait eginkizun betetzeko eta zerbitzua modu integrean emateko.

Lankidetzaren horrek bere legezko babesa du administrazioen arteko lankidetzaren, elkarlan- eta laguntza-oinarrietan, besteak beste ondoko arau hauetan jasoa: Sektore Publikoaren Araubide Juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legeko 140. artikulua eta hurrengoak, eta Hitzarmen honetan gauzatutako Gizarte Zerbitzuen Legeko 43. artikulua eta hurrengoak.

Etixerako Laguntzarako gizarte-zerbitzuaren gaian udal eginkizunek duten izaera ezberdinak beharrezko egiten du lehen aipatutako 40/2015 Legeko 47. artikuluan eta hurrengoetan aurreikusitakoaren arabera formalizatutako Hitzarmen honek bi lankidetz-formula jaso ditzan: 1) gizarte-prestazioarekin eta prezio publikoaren diru-bilketarekin ere zerikusia duten administrazio-prozeduren tramitazio eta garapenari dagozkion eginkizunak betetzeko eskumenak eskuordetzea, eta 2) zerbitzua bera ematea dakarren beste eginkizun batzuen kudeaketaren ardura ematea. Bi lankidetz-formulak Hitzarmen bakar batean biltzen dira horien eraginkortasuna, balioa eta indarraldia elkarren artean lotuta gera daitezen.

Foru-lankidetzaren oinarrietako bat Arabako udalerrri guztietan zerbitzuaren kalitatea eta intentsitatea berdintsua izan dadin sustatzea denez, beharrezkoa da zerbitzuaren eta bere prezio publikoen Araudia berdina izatea hitzarmena sinatzen duten Udal guztietarako. Horrekin, gainera, eskumenak eskuordetzea betetzea ahalbidetuko da, eta horregatik zerbitzuaren eta bere prezio publikoaren Araudia Hitzarmenaren eranskin modura jasotzen da.

Hitzarmen hau aplikatuko da berau sinatzen duten Lurralde Historikoko udalerrietan, ondoren zehaztutako klausulen arabera.

## **KLAUSULAK**

Lehenengoa. Xedea

1.1. Hitzarmen honen xedea da XXXko Udalak Etixerako Laguntza Zerbitzuari dagokionez dituen eskumenak Arabako Foru Aldundiari eskuordetzea eta gai horren kudeaketaren ardura Arabako Foru Aldundiari ematea zerbitzu hori osorik eman dezan.

1.2 Hitzarmen honetatik kanpo gelditzen dira Etixerako Laguntza Zerbitzuaren informazio, balorazio, diagnostiko eta orientazioari buruzko udal eginkizun eta eskumen guztiak. Izan ere, horiek denak oinarritzko gizarte-zerbitzuei dagozkenez, udalak berak edota Kuadrillak eskainiko dituzte.

Bigarrena. Zerbitzuaren Araudia eta Hitzarmenaren eraginkortasuna.

2.1 Arabako Foru Aldundiak eta XXXko Udalak konpromisoa hartzen dute Etixerako Laguntza zerbitzu honen eta dagokion Zerga Ordenantzaren Udal Araudia onartu eta hilabeteko epean sinatzeko Hitzarmen hau. Araudia eta Ordenantza hitzarmen honi lotzen zaizkio I. eta II. Eranskin modura, hurrenez hurren.

2.2 Araudi hori onartuta eta indarrean egotea nahitaezko baldintza da Hitzarmen hau eraginkorra izateko eta indarrean egoteko. XXXko Udalak erabakiko balu prezio publikoari dagokionez Zerga Ordenantzan (hitzarmen honen II. eranskina) aurreikusitako zerga-salbuespen edo -hobariez gain bestelakorik ezartzea, bere kontura izango dira zenbateko horiek.

Hirugarrena. Eskumenak eskuordetzearen irismena.

3.1 XXXko Udalak Arabako Foru Aldundiari eskuordetzen dizkio Etxerako Laguntza Zerbitzuari dagozkion ondoko eskumenak:

- a. Erabaki-proposamena bideratzea (udalaren gizarte-zerbitzuek prestatutakoa), zerbitzu hori ematearekin zerikusia duten prozedura administratibo guztiak amaitu arte, horretarako beharrezkoak diren erabaki guztiak hartuz eta, bereziki, prestazio hori jasotzeko eskubidea onartu, baliatu, eten edota amaitzeari buruzkoak, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudian ezarritako baldintzetan.
- b. Zerbitzuaren prestazio egokia emateko beharrezkoak diren aplikazio-jarraibideak eta -irizpideak finkatzea, Etxerako Laguntza Zerbitzuaren Udal Araudian jasotzen den moduan.
- c. Zerga Ordenantzan zerbitzuaren prestaziorako ezartzen diren prezio publikoak kudeatu, likidatu, ikuskatu eta biltzea, Foru Ogasunen Araudian eta, modu osagarrian, Arabako Zerga Orokorrari buruzko Foru Arauan jasotakoarekin bat.
- d. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren gaian zehapenak ezartzeko ahalmena betetzea eta legez beharrezkoak diren ikuskapenak eta egiaztapenak egitea.
- e. Eskuordetutako eskumenak betetzean erabaki diren ekintzen aurka jarritako administrazio-helegiteak erabakitzea.

3.2 Arabako Foru Aldundiari dagokio eskumen hori eskuordetuta betetzea, indarrean dagoen Araudiarekin bat eta, bereziki, bigarren klausulan aipatu den zerbitzuaren eta bere prezioaren Araudiarekin bat.

Laugarrena. Etxerako Laguntza Zerbitzuaren kudeaketaren ardura ematearen irismena.

4.1 XXXko Udalak Arabako Foru Aldundiari Etxerako Laguntza Zerbitzuaren prestazio integralaren ardura ematen dio eta horrek onartu egiten du.

4.2 Kudeaketaren ardura-emate hori, eta, kasua balitz, beste prestazio osagarri batzuen, modu zuzenean ala zeharka egin ahal izango du Arabako Foru Aldundiak, legez ezarritako baldintzetan egin daitekeen kontratazio baten bidez, eta horren gehienezko indarraldia hitzarmen honen indarraldiarekin bat etorriz.

### **Bosgarrena.- Gobernu eta Koordinazio Batzordea.**

5.1. Hitzarmen honetan jasotako estipulazioen jarraipena, kontrola eta betetze-maila ziurtatzeko eta haren interpretazioa egiteko sortu da Gobernu eta Koordinazio Batzordea.

Hauxe izango da Gobernu eta Koordinazio Batzordearen osaera:

Udaletako sei (6) ordezkari: Aiarako bi, Araba Ipar-ekialdeko bi eta Araba Hegoaldeko bi.

Arabako Foru Aldundiko Gizarte-zerbitzuen Saileko hiru (3) ordezkari.

5.2.- Gobernu eta Koordinazio Batzordea arduratuko da bere antolamendu- eta funtzionamendu-araudia egiteaz.

5.3.- Hitzarmen honetan eta batzordearen antolamendu- eta funtzionamendu-araudian aurreikusita ez dauden kontuetan, sektore publikoaren erregimen juridikoari buruzko urriaren 1eko 40/2015 Legean xedatutako kide anitzeko organoen funtzionamendu-arauak hartuko ditu aintzat Gobernu eta Koordinazio Batzordeak.

### **Seigarrena.- Gobernu eta Koordinazio Batzordearen eginkizuna**

6.1. Honako hauek dira Gobernu eta Koordinazioaren eginkizunak:

- a. Hitzarmen honen plangintza, koordinazioa, jarraipena, kontrola, informazioa eta interpretazioa egitea.
- b. Hitzarmen honetan egon daitekeen edozein aldaketaren edo berrikuntzaren berri ematea.
- c. Hitzarmen honetan berriaz jasotako eskudantziak betetzea.

6.2.- Urtean behin, honako hauen berri emango zaio Gobernu eta Koordinazio Batzordeari:

- a. Hitzarmenaren garapen-egoeraren eta ekitaldian izandako gorabeherarik garrantzitsuenen berri.
- b. Arabako Foru Aldundiak sinatu beharreko kontratuen berri, 600.000 €-tik gorakoak direnean.
- c. Erakunde sinatzaileek helarazten dizkioten proposamen, kexu eta iradokizunen berri.

6.3.- Urtean behin, Arabako lurralde historikoko udalekin etxerako Laguntza Zerbitzua emateko sinatu diren hitzarmenen ondorioz izan den jardueraren berri emango duen txostena aurkeztuko da Arabako Gizarte Zerbitzuen Erakunde-arterko Mahaian.

### **Zazpigarrena.- Eskumen eskuordetuak eta kudeaketaren mandatua gauzatzea**

7.1.- Eskumenak eskuordetzeak ez du esan nahi titulartasuna lagako denik; izan ere, titulartasunak beti udalarena izaten jarraituko du, erabilera eskuordetu baino ez baita egingo.

7.2.- Urtean behin, gutxienez, eskumen eskuordetuen eta agindutako zerbitzuaren garapenaren berri emango dio Arabako Foru Aldundiak Gobernu eta Koordinazio Batzordeari.

7.3.- XXXko Udalak edozein unetan eskatu ahal izango dio Arabako Foru Aldundiari eskumen eskuordetuen eta zerbitzu-ematearen garapenari buruzko informazioa. Horretarako, idatzi bat bidali beharko dio Arabako Foru Aldundiko Gizarte Zerbitzuen saileko foru diputatuari. Arabako Foru Aldundiak gehienez hogeit hamar egun balioduneko epean bidaliko du eskaturiko informazioa, eskabidea Arabako Foru Aldundian erregistratzen den unetik zenbatuta.

#### **Zortzigarrena.- Araubide ekonomiko-finantzariora.**

Betiere, gaur egungo erabiltzaile bakoitzaren gastu publiko arrunta Arabako Foru Aldundiak finantzatu beharreko kopurutzat bermatuko da.

#### **Bederatzigarrena.- Araubide juridikoa**

Hitzarmen honek izaera administratiboa izango du. Administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organoen ardura izango da hitzarmena eta bera jorratzean edo beraren ondorioz egindako ekintza eta erabakiak bide judizialek berrikustea.

#### **Hamargarrena.- Iraupena**

10.1.- Hitzarmen honek lau urteko indarraldia izango du, betetzen hasten den unetik hasita, hamalagarren klausularen harira bigarren klausulan aurreikusitakoari jarraikiz. Epealdi hori amaitu ondoren, beste horrenbeste denboraz luzatu ahal izango da.

10.2.- Bi aldeetatik batek ere ez badu adierazten —hitzarmenaren indarraldia amaitu baino sei hilabete lehenago, gutxienez— ez duela luzatzeko asmorik, automatikoki luzatuta dagoela joko da.

10.3.- Udalen batek, edozein arrazoi dela eta, hitzarmena ez luzatzea erabakiko balu, horrek ez du esan nahi udal horren eremuko gainerako udalek ere amaitutzat jo beharko dutenik.

#### **Hamaikagarrena.- Hitzarmena ezeztatzeko arrazoiak.**

11.1.- Hona hitzarmena ezeztatzeko arrazoiak:

- a. Bi aldeek adosten badute.

- b. Bi aldeetako batek salatzen badu, salaketa horren dakarren ezeztapena indarrean sartu baino sei hilabete lehenago gutxienez.
- c. Gobernu eta Koordinazio Batzordean hitzarmen honen funtsezko klausulak interpretatzean adostasunik ez badago.
- d. Hitzarmenaren ondoriozko funtsezko betebeharrak betetzen ez badira. Hitzarmena ezeztatzeke arrazoi hori gauzatzeko, hitzarmena ezeztatzeke asmoa adierazi duen erakundeak, aurretiaz, ezeztatzeke arrazoi horren eta hitzarmena bertan behera uzteko asmoaren berri emango dio Gobernu eta Koordinazio Batzordeari. Jakinarazpen hori egin ondoren, gehienez hamabost egun balioduneko epean bilduko da batzordea ezeztapenaren jatorriari buruzko txostena emateko, beste aldea entzun ondoren. Batzordeak txostena eman ondoren, erakunde interesdunak dagokion erabakia hartuko du.
- e. Hitzarmena sinatu eta gerora, hitzarmena betetzeko ezintasuna sortzen bada. Adibidez, udalak etxerako Laguntza Zerbitzuari buruz erabakitakoa (hitzarmen honen bigarren klausulan xedatutako terminoetan eta salbuespenekin) ez den beste araudi bat onartzen edo aldatzen badu.
- f. Hitzarmenaren indarraldia eta luzapen-aldia amaitzen denean.

11.2.- Hitzarmena amaitu edo ezeztatu ondoren, haren kitapena hasiko da. Dagokion udala entzun ondoren, Arabako Foru Aldundiak formulatu eta Gobernu eta Koordinazio Batzordeak onartuko du.

11.3.- Arabako Foru Aldundiak hitzarmena bete ez duelako, XXXko Udalak hitzarmena ezeztatzea erabakitzen badu, Arabako Foru Aldundiak sor litezkeen kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

11.4- XXXko Udalak bere erabakiz hitzarmena ezeztatzen badu, ordea, zerbitzua zuzenean edo zeharka emateagatik Arabako Foru Aldundiak bere gain hartutako betebeharrak eta konpromisoak bereganatu beharko ditu udal horrek, edota bestela, kalte-ordainak ordaindu beharko ditu.

#### **Hamabigarrena.- Datuen babesa.**

Datu Pertsonalak babesteko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoari jarraikiz, XXXko Udala da erabiltzaileen fitxategiaren eta datu pertsonalen tratamenduaren titularra. Horregatik, Datu Pertsonalak babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 12. artikulua betez, erabiltzaileak identifikatzeko eta hitzarmen honetan aurreikusitako jarduerak egiteko Arabako Foru Aldundiari emango zaizkion datu pertsonalak hitzarmenaren indarraldian baino ez dira erabiliko, eta agindutako betebeharrak betetzeko soilik. Arabako Foru Aldundiak ez ditu hitzarmenean jasotakoa ez den beste ezertan erabiliko. Era berean, honako betebeharrak hauek ere onartzen ditu: eskuratzen dituen datuen konfidentzialtasuna, sekretua eta osotasuna ziurtatzeko hartu beharreko segurtasun-neurri guztiak hartu eta zaintzekoa eta, bereziki, 15/1000 Lege Organikoa garatzeko araudia onartzen duen

abenduaren 21eko 1720/2007 Errege Dekretuan (79. artikulutik 94.era bitarteko artikuluetan, bi horiek barne) ezartzen diren oinarrizko segurtasun-neurriak ezartzekoa. Ildo beretik, hitzarmena amaitzen denean, XXXko Udalari itzuliko dizkio jarduera egiteko eskuratu dituen datu pertsonalen euskarri guztiak.

**Hamahirugarrena.- Hitzarmenari atxikitze prozedura.**

Hitzarmen honi atxikitze, udalaren osoko bilkurak onartu beharko du, klausula guzti-guztiak berariaz onartuta eta aurretiaz hitzarmen honen bigarren klausulan aurreikusitako araudia ontzat emanda.

**Hamalagarrena.- Argitaratzea.**

Esku hartzen duten administrazio guztietako organo eskudunek onartu ondoren, hitzarmena ALHAOn argitaratuko da eta biharamunean sartuko da indarrean.